# Hezkuntzaren kontua. Euskal AE

## Emaitzen analisia

# Cuenta de la Educación. C.A. de Euskadi

## Análisis de resultados

Eustat

2001

# EMAITZEN ANALISIA

# ANÁLISIS DE RESULTADOS

## 1. INTRODUCCIÓN

La Comunidad Autónoma de Euskadi destinó, en 2001, un total de 2.145 millones de euros a bienes y servicios educativos, lo que representa un 5,0% de su PIB ese mismo año. El gasto corriente consumió el 93,4% de estos recursos, mientras que el 6,6% restante se dedicó a formación bruta de capital.

Los servicios educativos y formativos se llevaron la mayor parte del gasto corriente, 1.840 millones de euros en total o, lo que es lo mismo, un 85,8% sobre el total del gasto educativo. Las restantes actividades incluidas en la definición adoptada para el sector educativo consumieron porciones menos significativas de recursos. Así, las actividades complementarias en las instituciones educativas (transporte, comedor, residencia, etc.) supusieron 94 millones de euros, un 4,4% del gasto total; la administración general del sistema educativo 28 millones o un 1,3%, los libros y el material escolar adquiridos por los hogares 26 millones[(1)] , 1,2%; y, finalmente, la investigación y la innovación educativas representaron 16 millones, un 0,7% sobre el total del gasto en el sector.

## 1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoak 2.145 milioi euro eman zuen guztira 2001ean hezkuntza-ondasunetarako eta zerbitzuetarako; barne produktu gordinaren (BPG) %5, alegia. Horien %93,4 gastu arruntak izan ziren, eta %6,6, kapital-eraketa gordina.

Gastu arruntaren zati handiena hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetarako izan zen, guztira 1.840 milioi euro; hau da, hezkuntza-gastuen %85,8. Hezkuntza-sektorearen definizioak jasotzen dituen gainerako jarduerek baliabideen zati txikiagoak hartu zituzten. Horrela, hezkuntza-erakundeen jarduera osagarrietarako (garraioa, jantokia, bizilekua, eta abar) 94 milioi euro erabili ziren, gastu osoaren %4,4. Hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrak 28 milioi euro erabili zituen; hau da, %1,3. Etxeek erositako liburu eta eskola-materialetan 26 milioi erabili dira (%1,2)[(1)] . Ikerketak eta hezkuntza eraberritzeak 16 milioi hartu dute; hau da, gastu osoaren %0,7.

**1. TAULA HEZKUNTZA-SEKTOREAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA. 2001. EUROAK, MILAKOTAN.**
TABLA 1. GASTO Y FINANCIACIÓN DEL SECTOR EDUCATIVO. 2001. (MILES DE EUROS)

| | **GUZTIRA**<br>TOTAL | **PUBLIKOA**<br>PÚBLICO | **PRIBATUA**<br>PRIVADO |
|---|---|---|---|
| **Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak**<br>Servicios Educativos y Formativos | 1.839.804 | 1.524.884 | 314.920 |
| **Jarduera osagarriak**<br>Actividades Complementarias | 93.833 | 15.341 | 78.492 |
| **Garraioa**<br>Transporte | 26.455 | 12.180 | 14.275 |
| **Jantokia**<br>Comedor | 44.061 | 213 | 43.848 |
| **Bizilekua**<br>Residencia | 1.260 | 0 | 1.260 |
| **Bestelakoak**<br>Otras | 22.057 | 2.948 | 19.109 |
| **Etxeguneek erositako liburuak eta eskola-materiala**<br>Libros y Material Escolar adquirido por los Hogares | 25.618 | 0 | 25.618 |
| **Hezkuntza-sistemako administrazio orokorra**<br>Administración General del Sistema Educativo | 27.785 | 27.785 | 0 |
| **Ikerketa eta hezkuntza eraberritzea**<br>Investigación e Innovación Educativa | 15.835 | 15.835 | 0 |
| **HEZKUNTZAKO GASTU ARRUNTA, GUZTIRA**<br>TOTAL GASTO CORRIENTE EN EDUCACIÓN | **2.002.875** | **1.583.845** | **419.030** |
| **Kapitalaren eraketa gordina hezkuntza-erakundeetan**<br>Formación Bruta de Capital en instituciones educativas | 142.581 | 97.205 | 45.376 |
| **HEZKUNTZAKO GASTUA, GUZTIRA**<br>TOTAL GASTO EN EDUCACIÓN | **2.145.456** | **1.681.050** | **464.406** |
| **Hezkunutzako gastua, biztanleko (eurotan)**<br>Gasto en educación por habitante (en euros) | 1.020 | 799 | 221 |
| **Hezkuntzako gastua BPGaren ehunekotan**<br>Gasto en educación como % del PIB | 5,0 | 3,9 | 1,1 |

(1) Tan sólo se ha podido estimar el valor de los empleos de los hogares en libros de texto.

(1) Etxeek ikasliburuetan egindako gastuaren balioa baino ezin izan da balioztatu.

## 2. FINANCIACIÓN DEL GASTO CORRIENTE EN EDUCACIÓN

Son las instituciones y organismos públicos los que más recursos aportan en la financiación de las actividades que conforman el dominio del sector educativo. En 2001, el 78,4% del gasto directo en educación fue público, mientras que tan sólo el 21,6% tuvo un origen privado(2). Esta relación no varía de manera significativa cuando en lugar del gasto total se contempla la contribución pública al gasto corriente, que fue del 79,1%, por un 20,9% de la financiación privada.

La financiación pública fue predominante en los servicios educativos y formativos, donde alcanzó el 82,9% del total; lo mismo ocurrió con la formación bruta de capital, 68,2%; mientras que las actividades de administración general del sistema educativo y de investigación e innovación educativa fueron financiadas exclusivamente a través de fondos públicos. Por el contrario, la financiación privada fue predominante en la partida de actividades complementarias, donde soportó el 83,7% del total del gasto; y, lógicamente, en la de libros y material escolar adquirido por los hogares, 100%.

En lo que se refiere a la vertiente pública de la financiación destaca el papel del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, a cargo del 78,6% de la financiación pública directa. En segundo lugar se encuentra la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea, con un 8,6%, por encima de las corporaciones loca-

## 2. HEZKUNTZAKO GASTU ARRUNTEN FINANTZAKETA

Erakunde eta organismo publikoak dira hezkuntza-sektorearen jarduerak finantzatzeko diru gehien ematen dutenak. 2001ean, hezkuntzan egindako gastu zuzenaren %78,4 publikoa izan zen; beraz, gastuaren %21,6 baino ez zen pribatua izan(2. Erlazio hori ez da gehiegi aldatzen, gastu osoari begiratu beharrean, sektore publikoak gastu arruntari egindako ekarpenari begiratuz gero; izan ere, %79,1 izan zen, eta finantzaketa pribatuarena, %20,9.

Finantzaketa publikoa, oro har, prestakuntzako hezkuntza-zerbitzuetan egin zen, guztizkoaren %82,9, alegia. Gauza bera gertatu zen kapital-eraketa gordinarekin, %68,2. Era berean, hezkuntza-sistemaren administrazio orokorraren jarduerak eta ikerketa eta hezkuntza-eraberritzea funts publikoekin soilik finantzatu ziren. Bestalde, jarduera osagarrietarako finantzaketa, gehienbat, pribatua izan zen, gastu osoaren %83,7; eta, noski, etxeguneek erositako liburuen eta eskola-materialen finantzaketaren %100 pribatua izan zen.

Finantzaketa-bide publikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena da nagusia, finantzaketa publiko zuzenaren %78,6 egin baitu. Bigarrena Euskal Herriko Unibertsitatea izan da. Euskal Herriko Unibertsitateak %8,6ko finantzaketa egin du, toki-erakundeen (%4,7) eta Estatuko Administrazio Zentralaren

Gasto corriente en educación según financiación — Gráfico 1 **Grafikoa** — **Hezkuntzako gastu arrunta, finantzaketaren arabera**




(2) Recuérdese a la hora de interpretar estos datos que las subvenciones a las empresas para la realización de actividades formativas o las becas a los hogares no constituyen, según los criterios metodológicos empleados, gasto directo de las administraciones públicas. Los fondos efectivamente destinados por empresas y familias a las actividades educativas en virtud de dichas ayudas forman parte de la financiación directa del sector privado.

(2) Datu horiek interpretatzean, ez ahaztu enpresei prestakuntza-jarduerak antolatzeko emandako diru-laguntzak edo etxeguneei emandako bekak ez direla, erabilitako metodologia-irizpideei jarraituz, herri-administrazioen gastu zuzena. Laguntza horiek direla medio, enpresek eta familiek hezkuntza-jardueretarako emandako funtsak, sektore pribatuaren finantzaketa zuzentzat hartzen dira.

les, 4,7%, y de la Administración Central del Estado a la que se imputan cotizaciones sociales por el personal educativo adscrito al régimen de funcionarios públicos del Estado, 4,2%. El resto de instituciones públicas no supera individualmente el 1% del total de la financiación pública de la educación.

En cuanto a la financiación privada destacan por su contribución los hogares, que son el origen del 82,1% de los fondos privados. Las empresas son responsables del 14,3%, mientras que las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares lo son del 3,6% restante.

**Clasificación del gasto corriente en educación**

El Sistema de Cuentas de la Educación (SCE), descrito en el capítulo de metodología y definiciones, propone dos alternativas de clasificación del gasto corriente en educación: una clasificación funcional y una clasificación por proveedor. La primera se fundamenta en un criterio de finalidad, es decir, clasifica las distintas actividades y los empleos que generan de acuerdo con el objetivo que persiguen. Se distinguen varias categorías de actividades: las actividades que tienen una finalidad exclusivamente educativa y formativa en los distintos niveles educativos; aquellas otras que tienen lugar en las instituciones educativas con carácter complementario (transporte, comedor, residencia y otras); la adquisición de libros y materiales por parte de las familias; las de administración del sistema educativo en su conjunto, generalmente organizadas desde las administraciones públicas; y las de innovación y actualización de los métodos pedagógicos y docentes.

La clasificación por proveedores divide el gasto en función de la naturaleza de la unidad encargada de la provisión del bien o servicio educativo, distinguiendo establecimientos educativos, públicos y privados; centros internos de formación; establecimientos de venta al público de libros y material escolar; unidades de administración del sistema educativo; y, finalmente, otros proveedores.

**Gasto corriente en servicios educativos y formativos por niveles educativos**

De las cinco funciones de gasto en que se divide el gasto corriente en educación la más importante en términos cuantitativos es la que se identifica con la prestación de servicios educativos y formativos. Esta función ocupó en 2001 el 91,9% del gasto corriente en el sector, un total de 1.840 millones de euros, de los cuales 1.525, el 82,9%, correspondieron a financiación directa de las administraciones públicas.

El gasto en servicios educativos puede dividirse en función de la naturaleza reglada o no reglada de éstos. En la C. A. de Euskadi la educación reglada representó tres cuartas partes del total del gasto corriente en educación en 2001. Los recursos públicos se destinan preferentemente a financiar la educación reglada, de modo que ésta ocupó el 80,7% de los fondos públicos empleados en el sector educativo en dicho ejercicio. Las familias, las empresas y las instituciones sin fines de lucro reparten su esfuerzo casi por igual entre ambos tipos de educación, si bien en 2001 predominó la enseñanza no reglada que significó un 51,7% del gasto de estos sectores institucionales.

(%4,2) gainetik; azken horri egozten zaizkio Estatuko funtzionario publikoen erregimeneko hezkuntza-arloko langileek egindako gizarte-kotizazioak. Gainerako erakunde publikoak, banaka hartuta, ez dira hezkuntzaren finantzaketa publiko guztiaren %1era iristen.

Finantzaketa pribatuari dagokionez, etxeguneek egiten dute ekarpen nagusia; izan ere, funts pribatuen %82,1 sortzen dute. Enpresek %14,3 ematen dute, eta etxeen zerbitzura dauden mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeek, gainerako %3,6.

**Hezkuntzako gastu arrunten sailkapena**

Hezkuntza Kontuen Sistemak (HKS) (metodologia eta definizioak atalean deskribatuta dago) hezkuntzako gastu arrunta sailkatzeko bi bide proposatzen ditu: sailkapen funtzionala eta hornitzaileka egindako sailkapena. Lehenengoak helburua du irizpide; hau da, jarduerak eta enpleguak helburuaren arabera sailkatzen ditu. Hainbat jarduera-kategoria bereiz daitezke: hainbat hezkuntza--mailatan heztea eta prestatzea helburu duten jarduerak; ikastegietan antolatutako jarduera osagarriak (garraioa, jantokia, bizilekua, besteak beste); etxeguneek liburuak eta materialak erostea; hezkuntza-sistemaren kudeaketa, oro har herri administrazioek egiten dutena; eta irakaskuntzako eta pedagogiako metodoak berritzea eta gaurkotzea.

Hornitzaileka egindako sailkapenak, hezkuntza-ondasuna edo -zerbitzua ematen duen erakunde-unitatearen arabera banatzen du gastua. Honako hauek bereiziz: ikastegiak, publikoak nahiz pribatuak; prestakuntzarako barne zentroak; ikasliburuak eta eskola-materiala saltzen dituzten dendak; hezkuntza-sistemako administrazio-erakundeak; eta beste hornitzaile batzuk.

**Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuen gastu arrunta hezkuntza-mailen arabera**

Hezkuntzako gastu arruntak bost funtzio betetzen ditu; horietatik hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak ematea da garrantzitsuena, kopuruei behatuta. Funtzio hori 2001ean sektoreko gastu arruntaren %91,9 izan zen; hau da, 1.840 milioi euro. Horietatik 1.525 milioi (%82,9) herri--administrazioek zuzenean finantzatu zuten.

Hezkuntza-zerbitzuetan egindako gastua honako irizpide hauen arabera bana daiteke: arautua den edo ez. Euskal AEn, 2001eko hezkuntzako gastu arrunt osoaren hiru laurdenek hezkuntza arautua finantzatu zuten. Baliabide publikoak, oro har, hezkuntza arautua finantzatzeko erabili ohi dira; horrela, aipatutako ekitaldian hezkuntza-sektorean erabilitako funtsen %80,7 izan ziren. Familiek, enpresek eta mozkinik ateratzeko asmorik gabeko erakundeek bi hezkuntza-motak ia berdin finantzatzen dituzte; hala ere, 2001ean hezkuntza ez-arautua erakunde--sektore horien gastuen %51,7 izan zen.

Gasto corriente en educación reglada y no reglada según tipo de financiación — Gráfico 2 Grafikoa — **Hezkuntza arautuko eta ez-arautuko gastu arrunta, finantzaketa eraren arabera**

**Guztizko orokorra** / Total general




Una clasificación que resulta de interés en el ámbito de la educación es la que distingue distintos niveles educativos. La clasificación por niveles que se ha empleado en la Cuenta de la Educación de la C.A. de Euskadi es la Clasificación Nacional de Educación (CNED), que resulta notablemente ambiciosa en cuanto al detalle de las categorías y grupos que propone y que da lugar a un total de 26 niveles distintos clasificados en categorías (designadas por letras) y grupos (representados por números). En la tabla adjunta se presenta un resumen del reparto por niveles del gasto corriente en actividades educativas y formativas. En cuanto al volumen de recursos domina la enseñanza secundaria que, en sus dos etapas, supuso en 2001 un 33,0% del gasto corriente en servicios educativos, frente al 22,2% de la enseñanza primaria, el 13,0% de la enseñanza superior, incluyendo las enseñanzas universitarias de primer y segundo ciclo, así como los programas de doctorado y los títulos de postgrado (categorías J y K), y el 10,5% de la enseñanza infantil. Los programas formativos que no implican requisito de formación académica para su realización incluyen la formación continua de los trabajadores organizada por los empleadores, así como el gasto de los hogares en academias y profesores particulares, entre otros, y representaron en 2001 un 10,7% del total del gasto en servicios educativos.

Hezkuntzaren alorrean interesgarria izan daitekeen sailkapena, hainbat hezkuntza-maila bereizten dituena da. Euskal AEko Hezkuntza Kontuak erabilitako mailakako sailkapena Hezkuntzaren Espainiako Sailkapena (CNED) da. Oso zehatza da proposatutako kategoriei eta taldeei buruzko xehetasunei dagokienez, eta 26 maila bereizten ditu kategoriatan (letrekin) eta taldetan (zenbakiekin). Honako taula honetan hezkuntza- eta prestakuntza-jardueretako gastu arrunten mailakako laburpena azaltzen da: Baliabide gehien erabili zutenak bigarren hezkuntzaren bi etapak izan ziren, 2001ean hezkuntza-zerbitzuetako gastu arruntaren %33,0 eman baitzitzaien. Gainerakoetan, lehen hezkuntzak %22,2 erabili zuen; goi-mailako irakaskuntzak, %13,0 (lehen eta bigarren zikloetan, doktoretza-programetan eta graduatuondoko tituluetan -J eta K kategoriak-); eta haur-hezkuntzak, %10,5. Prestakuntza akademikorik eskatzen ez duten prestakuntzako programek barne hartzen dute enplegatzaileek antolatutako langileen etengabeko prestakuntza, eta etxeguneek akademiak eta irakasle partikularrak ordaintzean egindako gastua, besteak beste; 2001ean hezkuntza-zerbitzuetako gastu osoaren %10,7 izan ziren.

## 2. TAULA HEZKUNTZA-ZERBITZUEN GASTU ARRUNTA, FINANTZAKETA ERAREN ETA HEZKUNTZA-MAILAREN* ARABERA EUROAK, MILAKOTAN.
## TABLA 2. GASTO CORRIENTE EN SERVICIO EDUCATIVOS POR NIVELES EDUCATIVOS* Y SEGÚN TIPO DE FINANCIACIÓN. (MILES DE EUROS)

| | **GUZTIRA** TOTAL | **PUBLIKOA** PÚBLICO | **PRIBATUA** PRIVADO |
|---|---|---|---|
| **EF.1. Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak guztira** Total Servicios Educativos y Formativos | 1.839.804 | 1.524.884 | 314.920 |
| **A. Haur-hezkuntza** Educación infantil | 192.305 | 181.547 | 10.758 |
| **B. Lehen Hezkuntza** Educación primaria | 408.593 | 391.258 | 17.335 |
| **C. Bigarren hezkuntzako lehen etapako titulu akademikorik behar ez duten prestakuntzako eta lanmunduratzeko programak.** Programas para la formación e inserción laboral que no precisan de una titulación académica de la primera etapa de secundaria para su realización. | 1.167 | 1.167 | – |
| **D. Bigarren hezkuntzako lehenengo etapa** Primera etapa de educación secundaria | 364.279 | 347.933 | 16.346 |
| **F. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa.** Segunda etapa de la educación secundaria. | 239.535 | 221.991 | 17.544 |
| **H. Lanbide zehatzean prestatzeko goi-mailako hezkuntzak eta baliokideak, arte-plastikoetako eta diseinuko hezkuntza eta kirol-hezkuntza.** Enseñanzas de grado superior de formación profesional específica y equivalentes, artes plásticas y diseño y deportivas. | 122.140 | 115.766 | 6.374 |
| **J. Lehen eta bigarren zikloko unibertsitate-hezkuntza.** Enseñanza universitaria de primer y segundo ciclo. | 233.315 | 138.311 | 95.004 |
| **K. Unibertsitate-titulua eskatzen duten programak** Programas que precisan de una titulación universitaria para su realización | 6.307 | 69 | 6.238 |
| **M. Prestakuntza akademikorik eskatzen ez duten prestakuntzako programak.** Programas formativos para los que no se especifica el requisito de formación académica para su realización. | 206.431 | 81.729 | 124.702 |
| **HH. Helduen hezkuntza** EPA. Enseñanza de personas adultas | 16.693 | 16.410 | 283 |
| **Sailkatu gabe** Sin clasificar | 49.039 | 28.703 | 20.336 |

* **Hezkuntza-mailak Hezkuntzaren Espainiako Sailkapenaren araberakoak dira, CNED-2000/**Niveles educativos según Clasificación Nacional de Educación, CNED-2000.

Gasto corriente en educación por nivel y según tipo de financiación — Gráfico **3 Grafikoa** — **Hezkuntzaren gastu arrunta mailaren eta finantzaketa-eraren arabera**



La información sobre alumnos matriculados en algunos de estos niveles educativos permite obtener indicadores sencillos de gasto por alumno que es preciso interpretar con la máxima cautela dado que el reparto del gasto por niveles educativos es resultado, en ocasiones, de estimaciones indirectas. De acuerdo con los datos obtenidos, el gasto por alumno resulta mayor en las enseñanzas de formación profesional, mientras que se encuentra más contenido en la enseñanza universitaria. A este respecto es necesario recordar que la parte del gasto en personal docente universitario imputable a su actividad investigadora ha sido objeto de estimación y no se ha contabilizado como gasto educativo, lo mismo que el resto de los gastos corrientes que tuvieran como destino específico las actividades de investigación y desarrollo tecnológico.

Horietariko maila batzuetan matrikulatutako ikasleei buruzko informazioak ikasleko gastuaren adierazleak kalkulatzea ahalbidetzen digu. Hala ere, datu horiek kontu handiz interpretatzekoak dira; izan ere, hezkuntza-mailako gastuen banaketa, batzuetan, zeharkako zenbatespenen ondorio da. Jasotako datuei jarraituz, gastua ikasleko handiagoa da lanbide-heziketako irakaskuntzetan, eta txikiagoa, berriz, unibertsitate-irakaskuntzan. Ildo horretan, ez da ahaztu behar unibertsitateko irakasleen ikerketa-jardueretara egotz daitekeen gastua balioztatu egin dela eta ez dela hezkuntza-gastutzat hartu. Era berean, ikerketa-jarduerak edo teknologia-garapena helburu zuten gainerako gastu arruntak ere ez dira hezkuntza-gastutzat jo.

**3. TAULA GASTU ARRUNTA (EUROAK, MILAKOTAN), IKASLE-KOPURUA ETA GASTUA IKASLEKO (EUROTAN) HEZKUNTZA-MODALITATE JAKIN BATZUETAN.**

TABLA 3. GASTO CORRIENTE (EN MILES DE EUROS), NÚMERO DE ALUMNOS Y GASTO POR ALUMNO (EN EUROS) EN UNA SELECCIÓN DE MODALIDADES EDUCATIVAS.

| | **GASTU ARRUNTA**<br>GASTO CORRIENTE | **IKASLE KOPURUA**<br>NÚMERO DE ALUMNOS | **IKASLEKO GASTUA**<br>GASTO POR ALUMNO |
|---|---|---|---|
| **Derrigorrezko Hezkuntza**<br>Enseñanza Obligatoria | 771.392 | 177.355 | 4.349 |
| **Lehen Hezkuntza**<br>Primaria | 407.113 | 97.694 | 4.167 |
| **DBH**<br>ESO | 364.279 | 79.661 | 4.573 |
| **Irakaskuntza ez-derrigorrezkoa**<br>Enseñanza no obligatoria | 811.775 | 253.187 | 3.206 |
| **Haur-hezkuntza**<br>Educación infantil | 192.305 | 59.877 | 3.212 |
| **Batxilergoa**<br>Bachillerato | 155.035 | 37.937 | 4.087 |
| **Unibertsitateko irakaskuntza**<br>Enseñanza universitaria | 239.622 | 80.486 | 2.977 |
| **Lanbide-heziketa**<br>Formación profesional | 193.577 | 31.302 | 6.184 |
| **Helduen Etengabeko Hezkuntza**<br>EPA | 16.693 | 15.026 | 1.111 |
| **Araubide bereziko irakaskuntzak**<br>Enseñanzas de régimen especial | 14.543 | 28.562 | 509 |

## Gasto corriente en educación por proveedores

El gasto corriente en educación de la C. A. de Euskadi tiene lugar mayoritariamente en establecimientos cuya actividad principal es la enseñanza en sus diferentes niveles. Los establecimientos de enseñanza de titularidad pública consumieron en 2001 el 58,3% de los recursos, mientras que en los centros privados de enseñanza tuvo lugar el 33,0% del gasto corriente en educación. De entre el resto de los proveedores de bienes y servicios educativos cabe señalar el papel de las instituciones encargadas de la administración general del sistema educativo, principalmente el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, que emplearon un 2% de los recursos económicos en el sector. Los centros internos de formación ocuparían un lugar más destacado en esta clasificación si no fuera porque el valor estimado para el gasto en formación profesional de las empresas no ha podido ser desglosado y se refleja, en su totalidad, en la categoría "no clasificado".

## Hezkuntzako gastu arrunta, hornitzailearen arabera

Euskal AEn, hezkuntzako gastu arrunta hainbat hezkuntza-mailatan jarduten diren ikastegietan egiten da batik bat. Titulartasun publikoko ikastegiek baliabideen %58,3 hartu zuten 2001ean; ikastegi pribatuek, aldiz, hezkuntzako gastu orokorraren %33,0. Hezkuntza-ondasunen eta -zerbitzuen gainerako hornitzaileen artean, aipatzekoak dira hezkuntza-sistemaren administrazio orokorraz arduratzen diren erakundeak, bereziki Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; izan ere, sektoreko baliabide ekonomikoen %2 erabili zuten. Sailkapen honetan, prestakuntzarako barne zentroak aipagarriagoak izango lirateke, baina enpresek ezin izan dute lanbide-heziketako gastuaren balioa kalkulatu, eta «Sailkatu gabe» kategorian ageri da.




## 3. COMPARACIÓN INTERNACIONAL DEL GASTO EN EDUCACIÓN

La ausencia de una metodología común, así como la propia complejidad del sector educativo, hace que resulte relativamente difícil efectuar comparaciones internacionales absolutamente fiables. De hecho, en pocos países se cuenta con información tan completa y desagregada como la que se ofrece en esta Cuenta. Con todo, es posible ofrecer una visión comparada y relativamente rigurosa de indicadores internacionales de gasto en educación a partir de los datos homogeneizados y recopilados por OECD en la publicación "Education at a glance" (OECD, 2003).

La información de OECD no se refiere al Gasto total en educación, tal y como éste ha sido definido en la Cuenta de Educación de la C. A. de Euskadi, sino al Gasto en los establecimientos educativos. Dado que este concepto resulta más restrictivo que el que se emplea en la Cuenta de Educación de la C. A. de Euskadi, ha sido necesario proceder a la realización de un ajuste de los resultados obtenidos en esta última. Así, se ha calculado un total de 1.917 millones de euros de gasto en establecimientos educativos en la C. A. de Euskadi en 2001, de los cuales 660 millones corresponderían a educación obligatoria. Este dato, aunque comparable con los datos de OECD para otros países, probablemente subestime el valor real del indicador al no incluir la parte del gasto en formación profesional continua organizada y financiada por los empleadores que tiene lugar en establecimientos educativos.

El resultado anterior se traduce en un 4,8% del PIB de la C. A. de Euskadi empleado en las actividades de establecimientos educativos, valor que sitúa a esta Comunidad en posiciones similares a países como

## 3. HEZKUNTZAKO GASTUEN NAZIOARTEKO KONPARAKETA

Nazioarteko konparaketa erabat fidagarriak egitea zaila da; izan ere, ez dago guztientzako metodologia bakar bat, eta, gainera, hezkuntza-sektorea konplexua da oso. Egiaz, herrialde gutxitan dute kontu honek eskaintzen duen bezain informazio osoa eta banatua. Hala eta guztiz ere, posible da ikuspegi konparatu eta zehatza eskaintzea hezkuntza-gastuaren nazioarteko adierazleen inguruan; horiek kalkulatzeko datuak Ekonomia-Lankidetza Eta Garapenerako Erakundeak homogeneizatu eta bildu ditu Education at a glance argitalpenean (Ekonomia-Lankidetza eta Garapenerako Erakundea (OECD), 2003).

Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeko informazioa ez dagokio hezkuntza-gastu osoari, Euskal AEko Hezkuntza Kontuan definitu den bezala, baizik eta Ikastegietako gastuari. Kontzeptu hori ez da Euskal AEko Hezkuntza-kontua bezain zabala, eta, horregatik, azken horretan, lortutako emaitzak doitu egin behar izan dira. Horrela, Euskal AEko ikastegietan 2001ean guztira 1.917 milioi euro gastatu direla kalkulatu da, eta horietatik 660 milioi derrigorrezko hezkuntzara bideratu ziren. Datu horrek (nahiz eta beste herrialde batzuetarako Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeak eman dituen datuekin konparagarria izan) ziurrenik adierazlearen benetako balioa azpizenbatesten du; izan ere, enplegatzaileek ikastegietan antolatutako eta finantzatutako etengabeko lanbide-heziketaren gastua ez du barne hartzen.

Azken emaitza hori Euskal AEko ikastegietako jardueretara bideratutako BPGaren %4,8 da. Ehuneko horrek Euskal AEk Japoniaren, Herbehereen, Espainiaren edo

Japón, Holanda, España o Italia, aunque por debajo del esfuerzo realizado por la mayor parte de los países de su entorno y de un similar nivel de riqueza, como se aprecia en el gráfico 5.

Se ha calculado también el valor del gasto por estudiante en los niveles educativos entre la enseñanza primaria y la universitaria, que ha alcanzado un valor de 6.631 dólares en unidades equivalentes calculadas empleando paridades de poder adquisitivo (PPP). El citado dato es posible que subestime el valor verdadero del indicador que se emplea para el resto de los países en la tabla 4, ya que en dichos países se ha operado con equivalentes a tiempo completo mientras que en la C. A. de Euskadi se ha empleado el número total de estudiantes en las distintas enseñanzas. La cifra así obtenida supera la de países como el Reino Unido, Holanda o Finlandia, y se encuentra por debajo de otros referentes válidos como Bélgica, Francia, Alemania o Italia (ver gráfico 6). De hecho, el valor alcanzado en la C. A. de Euskadi en este indicador se ajusta considerablemente, aunque por defecto, al patrón que relaciona gasto en educación y PIB por habitante.

Italiaren antzeko egoera duela adierazten du; hala ere, aberastasun maila-antzekoa duten inguruko herrialde gehienen azpitik dago, 5. grafikoan ageri den bezala.

Halaber, lehen hezkuntzatik unibertsitatera bitarteko gastua ikasleko kalkulatu da: 6.631 dolar izan da, unitate baliokidetan kalkulatuta, eros-ahalmenaren parekotasuna erabiliz (PPP). Datu horrek 4. taulan gainerako herrialdeetarako erabiltzen duen benetako adierazlea azpizenbatets dezake; herrialde horietan jardunaldi osoko baliokideak erabili dituzte, eta Euskal AEn, aldiz, hainbat irakaskuntzako ikasle-kopuru osoa. Horren arabera, lortutako zifra hori Erresuma Batuan, Herbeheretan, Belgikan edo Finlandian lortutakoa baino altuagoa da, eta beste errefe-rente baliodun batzuen azpitik dago; adibidez, Belgika, Frantzia, Alemania edo Italia (ikus 6. grafikoa). Horrela, Euskal AEn adierazle horrek izandako balioa neurri handi batean (lehenetsia bada ere) bat dator barne-produktu gordina biztanleko eta hezkuntza-gastua erlazionatzen dituen ereduarekin.

## 4. TAULA. IKASTEGIETAKO GASTUEN ADIERAZLEEN NAZIOARTEKO KONPARAKETA. 2000.
## TABLA 4.COMPARACIÓN INTERNACIONAL DE INDICADORES DE GASTO EN ESTABLECIMIENTOS EDUCATIVOS. 2000.

| | A(1) | B(2) | C | D |
|---|---|---|---|---|
| **Australia /** Australia | 4,6 | 1,4 | 6,0 | 6.904 |
| **Austria /** Austria | 5,4(3) | 0,3 | 5,7 | 8.430 |
| **Belgika /** Bélgica | 5,1 | 0,4 | 5,5 | 6.544 |
| **Kanada /** Canada | 5,2 | 1,2 | 6,4 | 7.764 |
| **Txekiar Errepublika /** República Checa | 4,2 | 0,5 | 4,6 | 3.004 |
| **Danimarka /** Dinamarca | 6,4 | 0,3 | 6,7 | 8.302 |
| **Finlandia /** Finlandia | 5,5 | 0,1 | 5,6 | 6.003 |
| **Frantzia /** Francia | 5,7 | 0,4 | 6,1 | 6.708 |
| **Alemania /** Alemania | 4,3 | 1,0 | 5,3 | 6.849 |
| **Grezia /** Grecia | 3,7(3) | 0,2 | 4,0 | 3.494(4) |
| **Hungaria /** Hungría | 4,4 | 0,6 | 5,0 | 2.956(4) |
| **Islandia /** Islandia | 5,7(3) | 0,6 | 6,3 | 6.446(4) |
| **Irlanda /** Irlanda | 4,1 | 0,4 | 4,6 | 5.016 |
| **Italia /** Italia | 4,5 | 0,4 | 4,9 | 6.928(4) |
| **Japonia /** Japón | 3,5 | 1,2 | 4,6 | 6.744 |
| **Korea /** Corea | 4,3 | 2,8 | 7,1 | 4.294 |
| **Herbehereak /** Holanda | 4,3 | 0,4 | 4,7 | 6.125 |
| **Norvegia /** Noruega | 5,8 | 0,1 | 5,9 | 8.333(4) |
| **Polonia /** Polonia | 5,2(3) | nd | 5,2 | 2.149(4) |
| **Portugal /** Portugal | 5,6(3) | 0,1 | 5,7 | 4.552 |
| **Eslovakiar Errepublika /** República de Eslovaquia | 4,0(3) | 0,2 | 4,2 | 2.028 |
| **Espainia /** España | 4,3 | 0,6 | 4,9 | 5.037 |
| **Suedia /** Suecia* | 6,3 | 0,2 | 6,5 | 7.524 |
| **Suitza /** Suiza | 5,3 | 0,4 | 5,7 | 9.311(4) |
| **Turkia /** Turquía | 3,4(3) | nd | 3,4 | 1.073(4) |
| **Erresuma Batua /** Reino Unido | 4,5 | 0,7 | 5,3 | 5.592 |
| **Ameriketako Estatu Batuak /** Estados Unidos | 4,8 | 2,2 | 7,0 | 10.240 |
| **Euskal AE. /** C.A. de Euskadi(5) | 3,9(3) | 0,9 | 4,8 | 6.631(6) |

A. **Ikastegietako gastu publikoa, BPGren ehunekotan.**
Gasto Público en establecimientos educativos en porcentaje del PIB.

B. **Ikastegietako gastu pribatua, BPGren ehunekotan.**
Gasto Privado en establecimientos educativos en porcentaje del PIB.

C. **Ikastegietako gastu osoa, BPGren ehunekotan.**
Gasto Total en establecimientos educativos en porcentaje del PIB.

D. **Ikastegietan ikasleko gastua guztira (jardunaldi osoko baliokideetan) lehen hezkuntzatik unibertsitateraino eta dolar unitate baliokidez kalkulatuta, eros-ahalmenaren parekotasuna erabiliz (PPP).**
Gasto Total en establecimientos educativos por estudiante (en equivalente a tiempo completo) en los niveles de enseñanza desde primaria hasta universitaria y en unidades equivalentes de dólar calculadas empleando paridades de poder adquisitivo (PPP).

1 **Etxeguneek, ikastegietan egindako kontsumoa finantzatzeko, jasotako diru-laguntza publikoak barne. Ikastegien nazioarteko gastu zuzena barne.**
Incluye las subvenciones de origen público a los hogares destinadas a financiar su consumo en establecimientos educativos. Incluye el gasto directo de origen internacional en establecimientos educativos.

2 **Diru-laguntza publiko garbia.**
Neto de subvenciones públicas.

3 **Familiei emandako diru-laguntzak eta transferentziak gastu pribatutzat hartzen dira, eta ez publikotzat.**
Las subvenciones y transferencias a las familias se incluyen en el gasto privado y no en el público.

4 **Adierazlea ikastegi publikoetarako soilik kalkulatu da.**
El indicador ha sido calculado sólo para los establecimientos públicos.

5 **2001. urteari dagozkion datuak.**
Datos relativos a 2001.

6 **Kalkulua ikasle kopuru osoa kontuan hartuz egin da, jardunaldi osoko baliokideak doitu gabe.**
El cálculo se ha efectuado sobre el número total de estudiantes, sin ajuste de equivalentes a tiempo completo.

Riqueza y Gasto en Educación por Estudiante Gráfico **5 Grafikoa** **Aberastasuna eta hezkuntza-gastua ikasleko**




Riqueza y Gasto en Educación Gráfico **6 Grafikoa** **Aberastasuna eta hezkuntza-gastua**

